

ZM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako hamalortzaka, 75.alea • 2022ko maiatz



CHEMA SALCEDO

Zorrotzan jaiotako kazetari peruar ospetsua

Azaleko argazkia: RPP (Radio Programas del Perú)



**Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?**

**Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik**

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com



E m a n a l d i a k

Euskal Dantzak
Bertsolaria
Lirika
Musika klasikoa
Ballet klasikoa
Dantza garaikidea
Dantza espainola

MAIATZAK 28 | 18:30ean
ZORROTZA Hockey pista
(Ateen irekiera 18:00etan)

Sarrerak eskuragai: Calzados Omega eta Regalos Omega
Prezioa: 3 €



Segurtasuna hizpide

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
75. alea. 2022ko maiatza

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratxe Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina



Bilbao
EUSKAL
KULTURAREN
IRAKASLEA

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jasotzen du.

Edukia erantzule bakarra ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Joan den martxoaren 24an, herritarrei irekitako foro-formatuan, gure auzoko lehen segurtasun-tailerria egin zen. Ekitaldi honetan, alkatea, hainbat zinegotzi eta Udaltzaingoko agintari bertan zirela, adierazi ahal izan genituen gure auzoan gai horri buruz ditugun kezka.

Bestalde, udal-arduradunek Zorrotzan segurtasunari lotutako alderdiak hobetzeko egiten duten lanaren eta abian jarritako neurrien berri eman ziguten.

Hemendik aurrera, topaketa horiek egiten jarraitzea espero dugu, eta oraingo honetan bezala, parte hartzen jarraitzea, bizikidetzatza hobetzeko eta guztion artean auzoa hobetzen laguntzeko.

Era berean, joan den apirilaren 7an (foro ireki batean) Hiri Lagunkoia izeneko hirugarren Bilbao Planaren aurkezpena egin genuen. Kasu honetan, proiektua aurrera eramateaz arduratzen den talde eragileak, Zorrotza aukeratu du auzo pilotu gisa. Auzo-Elkartetik, dei egiten duten ekimenei adi egotea eta horietan aktiboki parte hartzea gomendatzen dugu, garrantzitsua iruditzen baitzaigu guztiok proiektu honetan inplikatzeko.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da gure auzoak Korrikaren ospakizunean izandako parte-hartzea, bai Zorrotzara iritsi aurretiko egunetan, bai apirilaren 6an gure auzora heldu zenean. Zorrotza ere euskararen alde!



zorrotza
auzo elkartea



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarri



ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*



Afariak ostiral
eta larunbatetan
Etkeko berezitasuna:
katxopoa.

Telefona: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbol, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



Atletismo-pistaren eta errugbi-eremuaren ondoko eraikina berritu eta handituko du Bilboko Udalak

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udalak Zorrotzako kiroldegiko atletismo-pistaren eta errugbi-eremuaren ondoko eraikina birmoldatu eta handituko du. Zaharkituak geratu diren gaur egungo guneak berritzea da proiektu honen helburua, eta orain libre dagoen eremu mugakidea baliatzea jarduerak handitzeko eta erabilera berrietarako.

Eraikin berri bat egingo dute dagoenaren ondoan, harekin konektatuta, eta 1.700 m² baino gehiago izango ditu, bi pisutan banatuta. Besteak beste, aldagela berriak, komun publikoak, biltegi-modulua eta erabilera anitzeko gela egongo dira bertan.

Gaur egungo eraikinean, finish dorreko beiratea aldatuko dute, eta aldagelak, epaile eta

arbitroen eremua, eta erizaintzako eta lehen sorospenetako gunea berrituko dituzte. Hala ere, harmailetan esku hartuko dute, guztiz irisgarriak izan daitezzen.

Lanak 2022ko maiatzean hasiko dira, eta aurreikusten da 2023ko irailean amaitzea. 2,1 milioi euroko inbertsioa egingo da.

Atletismo Santutxu eta Universitario Rugby taldeetako ordezkariekin batera egingo diren proiektuaren lanen aurkezpen-ekitaldian, Bilboko alkateak gogorarazi zuen orain egingo diren lanek urrian amaitutakoak osatuko dituztela —atletismo-pistako zoladura eta beroketa-guneko belar artifiziala berritzea; modalitatearen berezko elementuak hobetzea, eta markatzea, pintatzea eta seinaleztatzea—.

Bilboko HAPO berriak plan berezi bat garatuko du Zorrotzako Puntarako

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotza Puntako hirigintza-berrantolaketarako aurreko plan berezi bat onartzea aurreikusten du Bilboko Udalak. Hala ziurtatu du Asier Abaunza Obrak, Hiri Plangintza eta Proiektu Estrategikoen saileko zinegotziak, Deia egunkarian argitaratutako informazioa-

ren arabera. Abaunzak informazio horretan dioenez, Udalak erabilera mistoen eredu batean ari da lanean, egungo auzoari itsasitako bizitegi-eremu bat eta penintsularen puntan kokatuko litzatekeen jarduera ekonomikorako beste eremu bat aurreikusten dituen.

Saneamendu-ponpaketaren etenak eragin zuen Clara Campoamor kaleko uholdea

Hornidura elektrikoaren etenaldi baten ondorioz, saneamendu-ponpek ez zuten funtzionatu

AITOR MARÍN

Clara Campoamor tuneleko saneamendu-bonbak elikatzen dituen Iberdrolaren transformazio-zentroaren erorketa batek eragin zuen Clara Campoamorren zenbait ibilgailu kaltetu zituen uholdea. Hala adierazi du Bilboko Udalak, Auzo Elkarteak erregistratu zuen azalpen-eskaerari erantzunez.

Bilboko Udaleko Zerbitzuen eta Bizi Kalitatearen Arloak ziurtatu du hornidura elek-

trikoa izan balu uholdea ez zela gertatuko, saneamenduaren instalazioa euri-jasa handiko egun horietan erregistratutakoa baino emari handiagoak saihesteko dimentsionatuta baitago.

Era berean, Udalak adierazi du Iberdrola jakitun zela egoeraz, eta udal-zerbitzuek instalazio kritikoetarako (Zorrotzako ponpaketa, esaterako) hornidura elektrikoaren bermea indartzeko eskatu zutela.

Nazioarteko hainbat antzerki konpainia izango dira Clown Zorrotza jaialdiaren XIII. edizioan

ZORROTZ MORROTZ

Cirque Hirsute konpainia frantziarrak ekainaren 9an irekiko du jaialdia. Horrez gain, *A Vela Circo* galegoak eta *Paolo Martini & Adrian Schvarstein* norvegiar-katalanak ere arituko dira Zorrotzan, *Malas Compañías* eta *Zirko Txosko* euskal taldeekin oholtza partekatuz, hurrenez hurren, ostiralean, hilak 10, eta larunbatean, hilak 11. Ikuskizun guztiak doan eta Azoka parkean izango dira, ostegunean lehenengo saioa baino lehen kultur programari hasiera emango dion Lur Usabiagaren “*Zirkua eta globoflexia*” ikuskizuna izan ezik, aurrerapen hau liburutegian izango baita.





Fray Juan ikastetxearen inguruko espaloiak handituko dituzte

ZORROTZ MORROTZ

Udalak lanak hasi ditu Aldapeta kaleko espaloiak Fray Juan ikastetxe publikoaren inguruan zabaltzeko. Auzo Elkartek jakinarazi duenez, ikastetxerako irisgarritasuna proiektatu ondoren, espaloiek ez zuten betetzen gutxienez bi metro eta erdiko zabaleraz itatea eskatzen duen araudia. Galtzadak, bestalde, hiru metro eta erdikoa izan behar du; beraz, ikastetxearen ondoko aparkalekuak desagertu egingo dira.

Obren arduradunarekin hitz egiteko berrataratu ondoren eman du aditzera informazio hau Auzo Elkartek, bizilagunei emandako informaziorik ezaren aurrean. Aldi berean, Bilboko Udaleko Obrak eta Zerbitzuen Sailaren zinegotziarekin ere harremanetan jarri ziren, bizilagunen haserrea jakinarazteko asmoz. Era berean, Auzo Elkartea kexu agertu da inolako informaziorik jaso ez delako eta gai hau Barrutiko Kontseiluan landu ez delako.



Alazne Gogoratz Memoriala maiatzean ospatuko da

ZORROTZ MORROTZ

Maiatzaren 28an dantza eta musikarekin ezinbesteko hitzordua dugu kiroldegiko hockey pistan. Bi urteko etenaldiaren ondoren, Alazneren senide eta lagunek, Auzo Elkartek, Merkatarik Elkartek eta auzoko boluntario askok posible egingo dute *Alazne Gogoratz Memoriala* laugarrenez ospatzea. Aurreko urteetako kalitate maila bermatuta dago, izan ere Olaeta Ballets, Giulia Neri, Mikel del Valle, María Solinis, Qabalum taldea edota Adriana Bilbao, besteak beste, konfirmatu daude dagoeneko.

Sarrera 3 euroren truke lor daiteke Calzados Omegan eta Regalos Omegan. Gainera, Laguntasuna elkarrearen eskutik, maiatzaren azken astean auzoko saltokiak erakusleihoak dantzarekin eta musikarekin lotutako gaiekin apainduko dira eta laster iragarriko diren zenbait kultur ekitaldi ere eskainiko dira.

TXOKO FEMINISTA



2016. urteko inkesta batek Espainiar estatuan emakumeek seme-alaben zaintzan aste bakoitzeko 38 ordu eta gizonek 23 ordu ematen zituztela azaleratu zuen. Etxeko lanen kasuan, 20 eta 11 ordu zirelarik, hurrenez hurren. Gainera, COVID-19 pandemiaren testuinguruan, argi egin da emakumeak direla zaintza formalen eta ez formalen pisurik handiena daramatenak.

Konfinamenduan, eskolatik kanpo zeuden haurren, adineko pertsonen eta fa-

miliako kideen zaintza-premia handituekin etxeko zaintza-lanen eskaera ere handitu zen, emakumeen lan-karga eta ardura ere handituz, nahiz eta zaintza hori ikusezin geratu den. Hortaz, pandemiak nabarmen utzi du munduko ekonomia eta egunero-ko bizitzaren mantentzea emakume eta nesken lan ikusezin eta ordaindu gabean oinarritzen dela. Eta hau, balio ekonomiko eta sozial handia izateaz aparte, gizartea sostengatzeko ezinbestekoa da, era berean genero arteko desberdintasuna ere mantentzen duelarik.

SALAKETA ARGAZKIA

Trenbidea lurperatzearen lanak ote?

Urte asko eman ditugu zain, azkenean FEVE geltokia lurperatzeko lanak noiz hasiko. Eta oraingoz itxaron egin behar da... Izan ere, trenbidea igaro ostean Zorrotza Kastrexana errepidean dauden zuloak ez dira zoritxarrez lurperatzeko makineriak lanak hasi dituelako, baizik eta errepidean agertu diren bideko zulo itzelak. Errepide-zati horren titulartasuna norena den guztiz argi izan gabe (Aldundiari dagokiola uste dugu), arazo honi irtenbidea emateko eskatzen diogu dagokionari. Egunero bertatik igarotzen diren gidari eta txirrindulari ugariez gain, auzora iristen diren Bilbobuseko hiru lineak ere igarotzen direla gogoratu behar da.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



// Zorrotzan jada auzokoa ez naizela esaten didate //

ALVARO ESCUDERO

Bizitokia: Vallès Oriental (Katalunia)
Noiztik: 2020tik. Katalunian, 2009tik
Adina: 40 urte
Langibidea: Gizarte-hezitzailea

Bizitza aldaketaz beteriko prozesua da. Hori dela eta, Alvaro Escuderok duela 15 urtetik hona Katalunia du bizileku. Gizarte zerbitzuetarako lan egiten du eta aitortu digu oraindik kostatzen zaiola Mediterraneoko bizimodura ohitzea.

NAROA PEÑA

Nolatan heldu zinen Kataluniara bizitzera?
 Bartzelonan bikotea izateaz gain, bizitzan aldaketa bat nahi nuen, eta egia esan, Medite-rraneoa goxoezia zen...

Nolakoa da zure lana?

Gizarte-zerbitzuetarako egiten dut lan. Orain, institutu batean kokatuta. Behar dutenei laguntzen eta eskola-komunitateari gizarte begirada hurbiltzen diedala pentsatu nahi dut. Bertan "pieza" berria naiz, eraikitzen ari den figura... Baina haiei galdetzen badiet, batek daki zer esango duten.

Bizimodu berrira moldatzea kostatu zitzaizun?

Oraindik kostatzen zait, prozesuan nago eta. Sekula ez naiz hemengoa izango (ezta nahi ere), baina jada Zorrotzakoa ere ez naizela esaten didate auzoan. Zorrotzan bezala, badago gusturago nagoen hainbat dinamika,

baina hemen zer egin aukeratzeko libreago naizela uste dut.

Katalana ikasi duzu?

Noski! Adoktrinamendu prozesuan sartu behar nintzen hasieratik... (kar kar) bestela... Nola eros daiteke ogia katalanez egin gabe? Egia esan, gaztelaniaz egiten baduzu, azkar ikas dezakezula uste dut, eta batez ere jarre-raren araberrakoa dela.

Auzora askotan bueltatzen zara?

Urtean behin edo birritan gutxienez.

Oso ezberdina da hango bizimodua Zorrotzan zeneukanarekin alderatuta?

Zorrotzan sekula ez nintzen gurasoen etxetik kanpo bizi. Hori izan da aldaketarik handiena. Beno, hori eta hemen galerietako bezalako girorik ez dudala topatu! Lehenengo urteetan iraupen-handiko "giri-en" bizimodua neukan: kanpoko lagunekin parrandan,

“Gaur egun naizena izatera heltzeko jaioterriak garrantzi handia izan du

gaur auzo batean, hurrengo urtean beste batean... Ezagun pila bat, gizarte-harreman informalekin... Baina fase hori pasata, gauez etxean geratzen den etorkin bat baino ez naiz.

Zeren falta sumatzen duzu gehien?

Saderreko ke eta auzoko usainaz gain? (kar, kar) Ba betikoa: senideak, lagunak, EHA kua-drilla, Zorrotza Futbol Taldeko kideak, Gure Lurrako jendea, ume eta nerabezaroko oroi-penak... azken finean gaur egun naizen honetan garrantzi handienetarikoa izan du non jaio nintzen, nondik etorri ziren gurasoak eta norekin eduki nituen harremanak. Horrez gain, mendira joatea, kirola egitea eta auzoan poteatzeara ere faltan dut. *Moreno* tabernakoak bezalako arrautza gogorturik ez dago hemen!

Zer da gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gehien gustazen zaidana atzerriko anonima-tua da, duda barik. Hori eta hemen ‘*valors*’ ikasten ditudala egunero. Sentipen itzela da. Gutxien gustatzen zaidana? Zerbitzu-publikoen arreta hobe daitekeela uste dut. Baina beno, batzuek kontzertu-ekonomikoaz gozatzten dute, eta besteok Pujol eta burgesiaren herentziaz.



Eta bukatzeko... Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?

Bueltatu? Beno, ba amari testua itzuliko diotenez, baietz esan beharko nuke (kar, kar) Gauza pare bat itxi behar dut hemen eta laster nago bueltan. Hala ere, auzoarentzat egin dudana gauzarik onena bertatik ateratzeara izan da (kar, kar).



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC



ESKaintza PROGRESIBOETAN

ARMAZOIA + KRISTALAK

GOI-GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean + 4,00 eserako eta
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarreraluxury
OPTICA

cafetxinbo

Espezialitateak:

Tapak eta erraztiak
Kanapeak



Abaro estrata. 10
Tel. 94 608 85 74

Tipi-tapa, korrika Zorrotza euskaldun helburu!



TESTUA: AITOR MARÍN | ARGAZKIAK: AEK

Pandemia bat eta hiru urteren ostean, ilusio handiz hartu genuen auzoan 22. Korrika. HitzEkin lelopean, eguzkipean, eta baita euri, txingor eta elurpean ere, Euskal Herrian goitik behera eta esker eskuin ibilita 2575 kilometro egin dituen aurtengo Korrikak Zorrotza zeharkatu zuen apirilaren 6an gauerdiko minutu gutxi falta zirenean. Txinbotarrak Konpartsa, Institutua, Askabide, Zuri Gorri Taldea, Karri-lleruzaleok, Zorrotza FC, Harrapari, 10 de Fray Juan eta Gure Lurra: eskuz-esku ibili zen lekukoa, euskara daukagun zerbait barik, garen zerbait dela aldarrikatzen zuen mezua zera-mana. Eta irudietan ikus daitekeen bezala, gogo handia zegoen lasterketa zoro honetan berriro parte hartzeko, eta bertan oihukatu zen bezala, “Zorrotzan ere euskararen alde” gaudenok gero eta gehiago garena.

Eta ez hori bakarrik. Beste urteetan bezala, giroa, festa eta kultur ekitaldiak ez ziren lasterketak auzoa zeharkatu zuen egunera mugatu. Aurreko egunetan eta batez ere aurreko asteburuan hainbat egitasmo ospatu ziren: umeentzako ekintzak, hala nola bideo-jokoen gela edo txotxongiloen tailerra; bertso bazkari mundiala Miren Amuriza eta Oihana Iguaranekin; elektrotxaranga; dantzen ager-raldia; putxera lehiaketa; edota auzoko bi ikastetxeak eta institutua lotu zituen Korrika Txikia... Hauek guztiek Zorrotza euskalduna aldarrikatu zuten eta izugarritzko irudiak utzi zituzten. Zalantzarik gabe, erantzun bikaina Zorrotzak Korrikari emandakoa.



ZM | 11



Argazkia: Nkn Fotografia



ehbildu

egiteko
beste
modu bat



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

Frai Juan 20 • askabidezorrotza@gmail.com

CHEMA SALCEDO

Zorrotzan jaio tako kazetari peruar ospetsua

// Aita dokumentalaren grabazioan Zorrotzara jo nuen jaio nintzen etxea ikusi nahian, baina jada ez zegoen zutik //

Otsailean, Bartzelona-Athletic partida aurretiko prentsaurrekoan, ustekabe ederra hartu genuen. Kazetari peruar batek Marcelino entrenatzaileari Errege Kopa irabaziko zutela ziurtatzea eskatu zion. Hura Zorrotzan jaio zela jakitean, elkarrizketa egin behar geniola erabaki genuen. Perun ibilbide luze eta oparoa duen kazetari ospetsua da Chema Salcedo eta bere euskal erroak lau haizeetara aldarrikatzen ditu. Athletic zale amorratua ere bada.



Gauko hamarrak dira, arratsaldeko laurak Liman. Bere eguneroko irratsaiotik itzuli berria da Chema Salcedo. Adostu bezala, bideodeia egin diot eta kamera piztu orduko bi gauza erakutsi dizkit: Zorrotza Futbol Taldeko pin bat eta pegatina bat. Geroago jakin dut auzoko tabernari batek oparitu zizkiola 2013an, hona egindako bere ohiko bisita batean.

Zure berri izan dugu Marcellinori, Athleticeko entrenatzaileari, egindako galderagatik. Zer egiten zenuen bertan?

Harrigarria iruditzen zait galdera inozo horrek izan duen sona, Perun ere hedabide batzuek haren berri eman zuten! Ez nengoen bertan kazetari moduan, Lezama bisitatzen ari nintzen. Portugaletako lagun bat daukat Athleticeko prentsaburuaren laguna dena, hark gonbidatu ninduen. Entrenamendua ikusi ondoren prentsaurrekora sartu ginen, Bartzelona-Athletic partida aurretikoa. Orduan, gogora etorri zitzaidan Athleticek 1956an Kopan irabazi zueneko ospakizuna, ni ume nintzela bertan egon bainintzen. Eta horrelaxe bururatu zitzaidan Marcellinori hori galdetzea. Lekuz kanpoko galdera bat zen, ez nuen espero horrelako oihartzunik izatea.

Sarri etortzen zara Euskal Herrira bisitan?

2013az geroztik, urtean behin joaten saiatzen naiz. Aita aurreko urtean hil zitzaidan, bere bizitzari buruzko dokumentala hastear nengoela. Bera Euzko Gudarosteko gudaria izan zen eta Eibarko frontean borrokatu zen faxisten kontra. Beraz, Euskal Herrira joaten hasi nintzen, grabaketak egitera. "Aita" dokumen-

“Transito Kalexkako 3. zenbakian jaio nintzen 1946an. Etxeko fatxada eta ataria beltzak zirela gogoratzen dut, eta auzoa berriz, lokatzez beteta

tala 2014an aurkeztu genuen, Bilbon [EITB Nahieran plataforman ikusgai dago]. Orduetik, urtero joaten saiatu naiz, lagunak bisitatzera eta nire erroekin konektatzera. Aurten, otsailean egon naiz baina azaroan bueltatzen saiatuko naiz. Euri sasoieta bisitatzera gustuko dut, nire haurtzaroko oroitzapenetan Bilbo gris eta euritsua baitzen.

Zer gogoratzen duzu garai hartaz?

Ezer gutxi egia esan, lau urte neuzkan Perura bizitzera joan ginenean. 1946an jaio nintzen Zorrotzan, Transito Kalexkako 3. zenbakian. Etxeko sukaldean jaio nintzen, emagin baten laguntzaz. Osasun-egoera kaxkarrean jaio omen nintzenez, nire amamak sukaldeko txorrotan bataiatu ninduen berehala, hil egingo nintzelakoan. Gure etxeko fatxada eta ataria beltzak zirela gogoratzen dut. Auzoa, berriz, lokatzez beteta gogoratzen dut, zikina, oso industrial. Etxe aurrean harri handi bat zegoela gomutatzen dut eta triziklo batekin haren inguruan bira eta bira ibiltzen nintzela. Aitaren dokumentala grabatzera joan nintzenean etxea ikustera joan nintzen baina jadanik ez zegoen zutik; harriak, ordea, bertan jarraitzen zuen.



Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalduen etxea, 5. aldea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

Regalos Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

“Gure etxean oso Athletic zaleak izan gara beti. Ahal dudan guztietan, partidak ikusten saiatzen naiz, edo behintzat emaitzen berri izaten. Gure erroekiko loturak mantentzen lagundu digu

Zergatik erbesteratu zineten?

Aita tornularia zen Babcock-Wilcoxen, baina gure bizimodua ez zen hain ona, garai hartan soldatak nahiko eskasak baitziren. Orduan, Liman geneukan osaba baten birtartez, Perura bizitzera joateko aukera ateratu zen. Garai hartan Peru, eta oro har Amerika, lur promestua zen. Izan ere, hara joan ginen bere etxera lan egitera. Perun laster egin genuen aurrera.

“Nire aitari gehien eskertzen diodana da nire aurrean heriotzaz eta diruaz inolako trabarik gabe aritu izana

Noiztik zara hain Athletic zalea?

Hamar urteko umea nintzela, Bilbora itzuli ginen oporretan, 1956. urtea zen. Athleticen orduko “Generalísimo Kopa” irabazi zuen eta gu Bilboko Udaletxean egindako ospakizunean egon ginen. Gertakizun horrek izugarritzoki itzala utzi zidan betiko. Nire etxean beti izan gara oso zaleak, gure erroekiko lotura mantentzen lagundu digu. Pentsa, aitaren dokumentala ere San Mamesen bukatzen da! Hura grabatzera joan nintzenean, Athleticen prentsaburuak Ibaigane erakutsi zidan eta berak baino jokalaririk gehiago gogoratzen nituen nik! Ahal dudan guztietan, partidak ikusten saiatzen naiz, edo behin-

tzat, emaitzen berriak jarraitzen. Athleticen liburuak eta kamisetak ere baditut. Eta, zer diren gauzak, nire ama Matilderi denek “Txirri” esaten zioten; eskola garaiko goitizena zuen hori, Athleticen jokalaririk batengatik. Dirudienez, behin jolasgaraian baloiari ostiko ederra eman zion eta orduz geroztik “Txirri” izenarekin gelditu zen. Nola ez naiz ba ni Athleticzalea izango?

Zergatik erabaki zenuen “Aita” dokumentala egitea?

Nire aitak etxean kontatzen zituen gerrako bizipenak nire haurtzaroa markatu egin zutelako. Gure etxean ez zidaten inoiz gertatutakoa ezkutatu. Ulertzen dut etxe batzuetan gai horretaz aritu ez izana, segurtasunagatik, batez ere bertan bizitzen jarraitu behar zutelako. Nire aitari gehien eskertzen diodana da nire aurrean heriotzaz eta diruaz inolako trabarik gabe aritu izana. Bada, berak kontaturiko pasadizoei tiraka, dokumentazioa biltzen hasi nintzen, Eibarreko elkarte memorialista baten laguntza lortu nuen eta horrek dokumentala egitera eraman ninduen.

Nor zen zure aita?

José Salcedo Molinuevo deitzen zen eta Trapagakoa zen. Bera eta bere lagunak EAJkoak ziren, herrian gehienak sozialistak ziren garaian. Gerra piztean lagunekin kuartelera joan eta zuzenean erroldatu zituzten, inolako formakuntza militarrik ez zuten arren. Eibarko frontean gudari ibili zen 1937an, Euzko Gudarostearekin. Geroago Artxandan borrokatu zen, Bilboko defentsan. Euzko Jaurlaritzak tropa italiarrekin errendizioa adostean, gudari batzuek Ingaterrara ihes egitea lortu zuten, itsasontziz. Tamalez, Francok errendizio hori zapuztu eta nire aita eta besteak preso hartu zituzten faxistek. Geroago, aske utzi eta gurasoen etxera ezkutuan itzultzeko aukera izan zuen, baina herritar batek salatu eta berriro atxilotu zuten. Orduan, nire aititek herriko aberats bati bitartekari lanak egitea eskatu zion, gure birraitona Espainiaren alde Filipinetako gudan borrokatu zelako argudioa erabiliz. Eta halaxe lortu zuen komisaldegitik ateratzea. Geroago Babcock-en sartu zen tornulari eta nire amarekin ezkontzean, Zorrotzara joan ziren bizitzera.

Erredaktorea, editorea, atzerriko berriemailea, aurkezlea, idazlea, aktore edota gidoilari... Denetarik egin duen kazetaria

Zuzenbide ikasketak hasi baina utzi egin zituen, bere benetako bokazioa kazetaritza zela deskubritu zue-
nean. 1973az geroztik kazetari lanetan ibili da, egunkari, irrati zein telebistan. Erredakto-
rea, editorea, atzerriko berriemailea, aurkez-
lea... Denetarik egin du. Peruko ikus-entzunezko enpresa publikoko (Canal 7) zuzendaria izan da eta albistegi-zuzendaria RPP Noticias taldean. Peruko lehendakaritzarako hauteskunde -debateak zuzendu ditu.

Zenbait filmetan parte hartu du, gidoi-
lari zein aktore gisa. Bakarrizketak ere idatzi eta antzeztu ditu. Liburuak ere baditu, azkena, “Inútil es decir que te he olvidado”, bere bizipenekin eta fantasiazko istorioekin sortutako kro-
nika bat da. Hainbat dokumentalen egilea da: “Amazonico Soy” (2008), “Asháninka” (2012), “Aita” (2014) eta “Rwanda, mi última utopía” (2019).

Tumbesko Unibertsitateko Honoris Causa Doktore titulua dauka, Limako Hiriko domina eta Miraflores Udale-
rriko hiritar eredugarriaren titulua.

2018an ortzoietako minbizi batetik ebakuntza egin zioten eta denbora batez geldirik egon da, baina 2021eko ekai-
netik eguneroko irratsaio bat dauka: “Chema en PBO”.

1. Liman, aitarekin 1952. urtean.

2. Liman, aita, ama eta amonarekin 1952. urtean.

3. Aitarekin 2007. urtean.

4. Rwandan, umeekin, 2019an, “Rwanda, nire azken utopia” dokumentalaren grabazioan.

5. Gernikan, 2022ko otsailean.





AGENDA

Maiatzak 28 larunbata

20:00 Gaztetxean.

Kontzertua:

ESCUELA DE ODIO + SANNGRE + BARBAKORE.

Sarrera: 10 / 13 euro

Ekainak 9 osteguna

XIII. CLOWN ZORROTZA

18:00 Liburutegian.

Ipuin kontalaria:

LUR USABIAGA:

“Zirkua eta globofexia”

19:30 Azoka parkean.

Clown ikuskizuna:

CIRQUE HIRSUTE: “Les Butors”

Ekainak 10 ostirala

XIII. CLOWN ZORROTZA

18:30 Azoka parkean.

Clown ikuskizuna:

A VELA CIRCO: “A corda”

19:30 Azoka parkean.

Clown ikuskizuna:

MALAS COMPAÑÍAS: “Zirkus”



Ekainak 11 larunbata

XIII. CLOWN ZORROTZA

18:30 Azoka parkean.

Clown ikuskizuna:

ZIRKO TXOSKO: “Oh - pera”

19:30 Azoka parkean.

Clown ikuskizuna:

PAOLO MARTINI & ADRIAN

SCHVARSTEIN:

“Dulce hogar sobre ruedas”

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (uztaila-abuztua-iraila) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi ekainaren 15a baino lehen.



Dortokaren begirada

Jon Arretxe

Erein. 2022. 200 orrialde.



Bilboko San Frantzisko izan zitekeen, baina Madrilgo Lava-piés auzoa da. Bertako apartamentu batean bizi da bakar-bakarik Toure, gure sasi detektibe ezaguna, Nafar Pirinioetako herrixka batean eta Parisen ihesi ibili ondoren. Frantziako hiriburuan lapurtutako harribitxi batzuk ezkutatu ditu Retiro parkean, toki segurua delakoan,

baina norbaitek ostu ditu. Ezkutalekuan, bitxiak ordezkatzu, dortoka bat utzi dute lapurrek, inskripzio misteriotsu batekin. Hori da Tourek duen arrasto bakarra, eta hortik tiraka saiaturiko da altxorra berreskuratzen. Ikerketa honetan ez da bakarrik eongo, baina.



HUTS: “Krater”

(Autoekoizpena) 2022



Azken bi urteetan gizar-tea hankaz gora jarri duen gertakariak eragin zuzena izan du Trapaga eta Barakaldo artean mugitzen den hirukote honen lan berria konposatzerako eta izenburua emateko garaian. Haus-

kortasun prozesu honetan izandako partaide aldatek ere influentzia eta aire berriak ekarri dizkio taldeari, betiere euren izaera galdu gabe. Iazko uda bukaeran Asturiaseko Ovni estudioetara jo zuten 10 kantu berri hauek grabatu eta nahastera Desakato taldeko Pablo Martinezen gidaritzapean. Aldaketa nabarmena soinuaren aldetik, gordinagoa. Masterizazioa Victor Garciak burutu du Kataluniako Ultramarinos Costa Brava estudioan, kalitate-jauzi handia dudarik gabe. Dena den, taldearen aurreko lanei ezin diegu meriturik kendu, garrantzi handia izan baitute eboluzio honetan.

Askotariko estiloak bildu dituzte lan honetan eta horren adibide gisa Sasu Desagertutako Melt-down metalcore basatiaren lankidetzat “Pasioa” abestian. Lehen aipatutako heldutasunaren adibide garbia “Oasia” kantu borobila izan daiteke. Abesti azkarragoak ere aurkituko ditugu, “Egin zaitez superheroi” taldearen ADN zuzena daramana adibidez. Diseinua ere txalotzekoa da, non Mariano Sanchezek sekulako lana egin duen. Gozatu!

IBAI BARRIOS



PINTXOTAN

Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 1,50 euro.

Osagaiak: txanpiak, ogia, urdaiazpiko ondua, maionesa, baratxuria eta perrexila.

Hasteko plantxa berotzen dugu eta txanpiak gainean jartzen ditugu. Gorritzen utzi behar ditugu pixkatxo batean.

Hurrengo pausoa, ali-oli saltsa egitea da. Baratxuria zatitxotan moztu eta maionesarekin nahazten dugu. Txanpi gainean jartzen dugu nahasketa.

Ogi puxka bat hartu eta urdaiazpiko ondu xerra jartzen diogu gainean. Ondoren txanpiak bere gainean. Bukatzeko nahierara apaintzen dugu.

Txanpia ali oliarekin



JAI ALAI TABERNA

Ordutegia:

Astelehenetan itxita
Asteartetik- Igandera
12:30etik - 23:00etara

**Abaro estrata, 12
Zorrotza - Bilbo**



Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ

aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59



Hiltegia (II)

Hiltegi zaharretik barrire 1990-91 urte tartean egin zan aldaketa, egoana oso zahartute egoalako eta barri handi bet eraiki ebalako udalak (Europako hoberena jakitun askok esanda...). Instalazio oso modernoak eta mundure irekitzeko asmoz. Bertan musulmanak ere akatzen ebiezan haien haziendak, bertoko produkzioarako zein kanpoan saltzeko, Europan eta Afrikan.

MANU COBO

Handik gitxira, 2000an edo, udalak pribatizazioa aurrera eramatea ikusi eban eta 2004an praktikara eroan eban.

Bilboko hiltegia, Zorrotza auzoan dagoena, irekita egon zan hiru euskal hiriburueta-ko azkena izan zan. Lantegiak 51 udalerrri, 800 harategi eta 28 industrialde hornitzen ebazan pribatizatu aurretik. Likidazio-prozesua polemikagaz lotuta egon zan, Bilboko Udalaren oposizioak gaitzetsi baiebazan Gureokela sozietate berriari mesede egin nahi eutsola; izan ere, 240 abeltzainek baino gehixeagok sortu ebien elkarte hori 2004ko urrian, eta 90.000 euroko ekarpena egin eutson Eusko Jaurlaritzak. Helburua zan sektore bat berrantolatzea, Jaurlaritzaren arabera krisira bideratuta baitegoan, haragiaren ekoizpen-prozesu osoa kudeatzeko eta, horrela, ganadua bakarrik saltzeko zereginekaz amaitzeko.

Gureokelak Bilboko udal-hiltegiaren kudeaketa egin eban hamar urtez, enkante-prozesuan Udalak ezarritako gutxieneko kopuruagatik. Zehazki, 368.000 euroko eskaintza egin eban, eta 330.557 eurokoa izan zan hasierako zenbatekoa.

Gureokelaren eskaintza esleipena lortu nahi eban beste enpresa batena baino 2.000 euro handiagoa izan zan soilik, hau da, Miguel García Mendoza sozietatearena, Zorrotzako udal-hiltegian lan egiten ebana hain zuzen ere.

Esleipenaren baldintzek, gainera, enpresak Zorrotzako plantako 60 langileetatik bakar bat ere ez ebal bere gain hartuko jasotzen eban.

“Zorrotzako hiltegia hilzorian”

Titular honek zuen Solange Vázquez kazetariak 2009ko abuztuaren 7an sinatutako kronika. “Enpresa ordainketa-etenduran dago eta langileek uko egin zioten atzo animaliak hiltzeari” zioen azpigituluak. Hona hemen artikuluko osoa. Oso adierazgarria:


Zorrotzako hiltegiako langileak eta ardura-dunak beldur dira negozioari, ganaduari bezala, ordua iritsi ote zaion. Atzo ez zen animaliarik hil Bilboko instalazioetan, herrialdeko iparraldeko handienak eta Bizkai-ko bakarrak, Durangokoekin batera. Izan ere, abeltzainek beren animaliak ukuiluetatik atera behar izan zituzten – «80 abelburu eta 200 txerri inguru», langileen arabera –

Kamioietan sartu eta gremioko beste esparru batzuetara eramateko, batzuk Burgosen eta beste batzuk Kantabrian.

2004. urtean zerbitzua esku pribatuetara pasa zenetik (urte horretan Gurokela enpresak Bilboko Udalak zuen kudeaketa bereganatu zuen) aurrekaririk gabeko gertaera hori gertatu zen sarraski zerbitzuko langileek lan egiteari uko egin ziotelako. Atzo bertan jakinarazi zitzaien ez zutela hilabete honetan kobratuko, enpresa ordainketa-etenduran dagoelako duela astebetetik.

«Hemen gaude, baina ez dugu hatzik mugituko -esaten zuten langileek suminez-. Etor-tzen ikusten genuen, uzailean gauza gaizki baitzegoen: soldata birritan ordaindu ziguten, hasieran pixka bat eta amaieran beste pixka bat. Eta abuztuko soldata... ezer ez. Hau lehen aldia da». Ziurgabetasun horren aurrean, ganadua hiltzeaz arduratzen zirenek -Gurokelak azpikontrataturako Katalu-niako kooperatiba bateko kide diren 28 bat autonomok- greba egun osoan egitea erabaki zuten, eta gaur, ziurrenik, geldialdiarekin jarraituko zutela iragarri zuten.

Ibilaldi alferrekoetan, langileak oso kezkatuta ageri ziren beren etorkizunaz. «Ez dute esan dirurik ez dagoenik eta dirurik ez badago soldatarik ez dagoela, argi eta garbi», kontatzen zuten burumakur. Duela bost urte zerbitzuaren adjudikaziodunarekin lanean hasi zirenetik, atsekabetuta ikusi dute plantilla izugarri murrizten ari zela: «Hasieran, 50 bat ginen, eta, orain, ia erdiak. Gainera, esan digute jende gehiago joango dela kalera».



Langileekaz egindako akordioari esker, 26 langile ohi birkokatu ziran udaleko hainbat sailetan, hala nola Herriarren Segurtasuna, Zirkulazioa, Giza Baliabideak eta Gizarte Ekintza. Hainbat trafikiko-ikuskatzaille gisa birziklatu ziran, trafikiko-seinaleak, zebrabideak, Bilbobus hiri-autobusa edo ibiak berrikusteko.

Likidazio-prozesuaren ondorioz, gainera, kalte-ordainen onuradunen zerrendan ez dauzen beste langile batzuek auzibideak jarri dabez. Gutxienez bi kondena-epai izan dira udal-hiltegiko sozietatearen aurka, 90.000 eta 42.000 euro inguruko kalte-ordainak ordaintzera behartzen dabenak, hurrenez hurren.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46

Nork bere esperientzia

Jaio zaren tokiak berebiziko eragina du norbere identitatearen osaketan. Jakina denez, inguruak definitzen zaitu, eman dizuten hezkuntzak (eta hizkuntzak) eta garatu dituzun harremanek. Hiria edo landa. Erdigunea edo auzoa. Erdaldun edo euskaldun. Eskola publikoa edo ikastola kontzertatua. Kooperatiboa? Kristau eskola edo pribatua. Unibertsitatea hemen edo han, Deuston edo EHU-n. Unibertsitatea bai edo ez. Horiek guztiek osatzen zaituzte, baina baita kontu ustez garrantzigabeagoek ere. Etxean libururik ba ote zegoen, esaterako. Gurasook antzerkira eramaten al zintuzten, edo futbolera. Edo bietara. Bidaiatzen ote zenuten atzerrira. Gauza penetoloagoek ere bai. Hilabete amaierara zenbat dirurekin ailegatzen ziren etxean. Litekeena da hortxe egotea aurreko galderetako erantzun gehienak.

Jatorriak, bizi-esperientziak eta abarrek ez gintuzkete mugatu behar. Ez guke zertain geure bizi-baldintzek kaiolatu-ta bizi, alegia. Langileen seme langileak ez luke bere burua behartuta ikusi beharko langileen bizimodu latzari jarraitze-ra: “Langile baten semea naiz ni, aita bezela langile, eguneroko zeregine-



ASIER URKIZA

“ **Hiria edo landa. Erdigunea edo auzoa. Erdaldun edo euskaldun. Eskola publikoa edo ikastola kontzertatua. Kooperatiboa? Kristau eskola edo pribatua. Unibertsitatea hemen edo han, Unibertsitatea bai edo ez. Horiek guztiek osatzen zaituzte... Esanak esan, baina, aldea dago militanteen jatorriak (pertsonona oro har) garrantzia erabatekoa ez duela esatetik, batere zeresanik ez duela aldarrikatzer.**

tan soldata baten egile”. Okertuta hengoan, Xabier. Edo akaso transzendenziaz jantzitako hire ironia fin horietako bat zuan, Gizon arruntaren koplak bezala. Okerrena da seguruenik ez dagoela “langileen bizimodutzat” har litekeen ezer, historiak behin eta berriz erakutsi

legez, langileak askotari-koak izan baitira gustu, afizio, zaletasun, bizimodu eta abarrei dagokienez. Klase bateko partaide iza-teak elkartzen zituen (eta ditu), etorkizun partekatu batek, zilegi bazait horrela esatea. Orobat, jatorriak ez du ezer bermatzen identitate politikora begira, sarri askotan ikusi ditugunez langile desklasatuak, polizia sartzen direnak, eskumaren bozkatzailleak, gordinki faxistak, bestela.

Esanak esan, baina, aldea dago militanteen jatorriak (pertsonona oro har) garrantzia erabatekoa ez duela esatetik, batere zeresanik ez duela aldarrikatzer. Esan nahi baita, lehenengo paragrafoan planteatutako galdera guztiak gorabehera, erantzunak edozein izanda ere, horrek bost axola duela eta identitate politiko-kulturala nahimenean baino ez datzala. Eta nola esan, hori ere ez da. Nire ustez (bigarren olatu feministaren “pertsonala politikoa da” haren ildotik) mahaigaineratutako beharrek da jatorria eta esperientzia pertsonalaren auzia. Zertan ari garen ulertzeko modurik onena nondik gatozen argitzea delako askotan. Eta horixe izan daitekeelako modu bakarra ezkerreko alderdiak klaseertaineko unibertsitate irakaslez lepo ez egoteko. Etengabe langile klasea ahotan dutenak, bide batez. Har dezagun ahotsa eta zintzo mintza, nork bere esperientzia kontatuz. Argirik emango ahal digu horrek!

Trenbide-pasagunea lurperatzea, noizko?

Zorrotzako bizilagunok uste dugu obra hau ez dela inoiz iritsiko. Urteak aurrera doaz, eta ministerioaren eta udalaren artean era guztietako akordio eta hitzarmenak sinatzen dituzten arren, errealitatea da gaur egun ez dagoela inolako berritasunik lurperatzeari dagokionez.

EH Bildutik kezkaz ikusten dugu egoera hori. Lehen mailako lehentasuna izan beharko lukeena trenbidearen arloan, ez da inoiz egiten, eta trenentzako inbertsioak jendartean hain errentagarriak ez diren proiektuetan egiten dira, hala nola Abiadura Handiko Trenean edo Hegoaldeko Trenbide Saihesbidean.

Askotan “hitzetatik ekin-tzetara” esamoldea erabiltzen dugu, eta maiatz honetan hori izango da EH Bilduren helburu nagusia. Gainera, ezin dugu ahaztu obra hau egitea ezinbestekoa dela, segurtasunaren ikuspegitik ez ezik, trenen zerbitzua hobetzearen ikuspegitik ere, metroa auzora iristea errazten baitu 4. linearen bidez.

Lurperatzea lehenbait lehen egitea nahi dugu,



RAÚL MÉNDEZ
EH Bilduko batzarkidea
(@rmurigoitia)

“EH Bildutik kezkaz ikusten dugu egoera hori. Lehen mailako lehentasuna izan beharko lukeena trenbidearen arloan, ez da inoiz egiten, eta trenentzako inbertsioak jendartean hain errentagarriak ez diren proiektuetan egiten dira, hala nola Abiadura Handiko Trenean edo Hegoaldeko Trenbide Saihesbidean.

eta horretarako bi ekimen erregistratu ditugu hilabete honetan, obrak martxan jartzeko behin betiko bul-tzada eman dezaketena.

Lehenengoa mozio bat aurkeztea izan da. Mozio horren bidez, ADIFI eta Garraio, Mugikortasun eta

Hiri Agenda Ministerioari eskatu zaie Zorrotzan tren-bidea lurperatzeko erai-kuntza-proiektua idazteko lizitazioa ahalik eta gehien azkartzeko, izapide hori 2022a amaitu baino lehen egin dadin.

Bigarrena Garraio, Mugi-kortasun eta Hiri Agenda Ministerioarekin biltzeko eskaera izan da. “Mendia Mahomara ez badoa, Mahoma doa mendira”. EH Bildun uste dugu iniziatiba hartu behar dela guztioi interesatzen zaizkigun gaietan, lehentasunezkoak diren gaietan, eta horregatik espero dugu maiatzean zehar Oskar Matute Kongresuko kideak bilera hau egin ahal izatea, zalantzarik gabe izapideak arintzen eta egungo egoera ezagutzen lagunduko duena.

EH Bilduk 2012an eskatu zion lehen aldiz Bilboko Udalari gauzatzen ez den proiektu baten lidergoa harrezala. Hori dela eta, uste dugu ez dela gehiegizkoa, 10 urte geroago, eragindako alde guztiei erreklamatzeari informazio-azterlana 2022ko lehen seihilekoan amaitzea, 2023an obren lizitazioa hasi ahal izateko.

Ez dugu nahi indar politiko guztiek adostutako proiektu hau minutu bat gehiago atzeratzea, eta gure esku dagoen guztia egingo dugu horrela izan dadin.

Lurperatzea orain!





Alberto

Musukoa kendu dutenak eutsi diotenekin alderatuta, gehiago izan direla uste dut.



Ainara

Bi urte daramatzagu halako neurriekin. Birusarekin elkarbitza normalizatzeko denbora dela uste dut.

IRATZE PÉREZ

Musukoa leku itxietan.

Derrigortasuna kendu ostean, zer nolako sentrazioa duzu?



Carmen

Leku itxietan momentuz jende askok denboraldi baterako erabiliko dutela eta gradualki kentzen joango direla uste dut.



Rosa

Jendeak oraindik ere musukoa leku itxietan kentzeko beldur dela esango nuke. Denbora gehiago beharko da.



Alex

Ez dut uste orain arte indarrean izan diren neurriek birusa transmititu ez dadin lortuko dutenik.



Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

RISKO

Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86



**Plater konbinatuak,
hanburesak,
oilasko erreak...**

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

LASTER

**Elektrizitatea
elektronika**

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net
MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

Bilbon euskaraz



Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

iKasi
Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



IKASTALDE EBALDEA

Pinadia ebaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



IKASTALDE EBALDEA

Ikastalde ebaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 428 01 36
☎ 94 428 01 37
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.jeszorrotzabhi.hezkuntza.net

ekainak 9 · 10 · 11 junio

XIII. CLOWN ZORROTZA

2022

EGUENA 9 JUEVES

Zorrotzako Liburutegia
Biblioteka Zorroza

18.00 - LUR USABIAGA

"Zirkua eta globoflexia"
(Euskal Herria)

Azoka Parkea · Parque del Ferial

19.30 - CIRQUE HIRSUTE

"Les Butors"
(Frantzia)

BARIKUA 10 VIERNES

Azoka Parkea · Parque del Ferial

18.30 - A VELA CIRCO

"A corda"
(Galizia)

19.30 - MALAS COMPAÑÍAS

"Zirkus"
(Euskal Herria)

ZAPATUA 11 SÁBADO

Azoka Parkea · Parque del Ferial

18.30 - ZIRKO TXOSKO

"Oh - Pera"
(Euskal Herria)

19.30 - PAOLO MARTINI &
ADRIAN SCHVARSTEIN

"Dulce hogar sobre ruedas"
(Noruega · Katalunia)



KULTURA
BARRUTIK

B

Bilbao



WWW.KULTURABARRUTIK.EUS